



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko abenduaren 7a

146. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (15. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

- Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Ezkierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (21. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, terrorismoa goratzeko pintadak kentze aldera Gobernuaren Ordezkaritzarekin sinatutako protokoloa hausteko erabakiari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (23. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzetako ikaskuntza programa ezartzeari buruzko foru aginduaren zirriborroari eusteko arrazoiei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2016ko azaroaren 7ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua lehenengo idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

«"Bat. 7. artikulua, n) letra, hirugarren zenbakia, bigarren lerrokada.

Atzerrian egon bitartean sortutako ordainsariei aplikatuko zaie salbuespena, urtero 61.000 euroi gehienez. Erregelamenduz ezarri ahalko da egun bati dagokion diru-zenbateko salbuesia kalkulatzeko prozedura"».

Zioak: Atzerrira joandako langileen lan-etekinen salbuespenak helburu du enpresa nafarrak nazioartera ateratzeko erraztasunak ematea. Gaur egungo muga 30.000 eurokoa da; Estatuan edo Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, bikoitza da. Horrek trabak jartzen dizkio enpresa nafarra nazioartera ateratzeari, eta desabantaila da Espainiako gainerako lurraldeekiko. Hori dela eta, aurreko muga berreskuratzea proposatzen dugu.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 1. artikuluko 1. idatz-zatiari letra berria gehitzeko zuzenketa.

"7. artikulua. Errenta salbuetsiak.

v) Edozein administrazio publikotatik jasotako familia-prestazio eta -laguntzak, jaiotzari, adopzioari, harrerari edo seme-alaba adingabeen zainketari lotutakoak"

Zioak: Hasiera batean, adingabeak zainzteagatiko prestazioak Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategineko II. tituluko X. kapituluan zeuden araututa, eta PFEZa-rengatik zergak ordaintzetik salbuetsita zeuden, zeren eta zerga horri buruzko testu bateginek, Nafarroan bezala estatuko legedian ere, horixe ezartzen baitzuten 7. artikuluko k) letran, non zuzeneko igorpena egiten baitzen II. tituluko aipatutako IX. kapituluan araututako prestazioetara.

Hala eta guztiz ere, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko eta sozietateen gaineko zerga, pertsona ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga hein batean aldatzeari buruzko azaroaren 28ko 35/2005 Legeak aldaketa bat izan zuen, zeina sartu baitzen azaroaren 15eko 35/2007 Legearen lehenengo xedapen gehigarriko lehenengo zenbakiaren bitartez; izan ere, azken horrek z) letra berria gehitu zien salbuespenen zerrendari, honako testu honekin: -

"z) Edozein administrazio publikotatik jasotako familia-prestazio eta -laguntzak, jaiotzari, adopzioari, harrerari edo seme-alaba adingabeen zainketari lotutakoak"

Hartara, 2011tik aurrera, 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 30/2010 Legearen azken xedapenetako hogeita batgarrenaren bigarren idatz-zatian ezarritakoaren indarrez, seme-alaba adingabeak zaintzeagatiko prestazioak berariaz araututa geratu zirenean, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, orduan indarrean zegoen Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategineko II. titularen IV. sexies kapitulu berriaren bitartez –eta horrelaxe egon dira 2016ko urtarrilaren 2ra arte–, Estatuan salbuetsita egoten jarraitu zuten, arestian aipatutako z) idatz-zatian ezarritakoaren indarrez.

Hala eta guztiz ere, antzeko letra bat, z) letra, bere garaian ez zenez sartu PFEZaren gaineko foru araudian, gertatu zen azken horretan Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategineko II. tituluko IX. kapitulurako bidalketa horri eutsi zitzaionez, eta jada hartan ez zeudenez jasota seme-alaba adingabeen zainketarengatiko prestazioak, azken horiek Nafarroan PFEZaren salbuespenik gabe geratu zirela.

Hortik aurrera, Nafarroako Ogasunak, zeinak horri buruz ezer esan ez baitu, 2016an erreklamazioak igorri dizkie minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten seme-alabak dituzten familia guztiei, kontzeptu hori dela eta 2011ko, 2012ko, 2013ko eta 2014ko ekitaldietan jaso zituzten prestazioak direla eta; hartara, Estatuko Zerga Ogasunaren aurrean azaldutako araudiaren arabera prestazio horiek salbuetsita dauden bitartean, Nafarroan, arau-desadostasun huts batengatik salbuetsita ez daudenez, zergak ordaintzeko eskatzen zaie inor ere akatsaz konturatu ez den lau urte horiengatik. Bitartean, familiak lasai zeuden aurreko egoeran jarraitzen zutela uste zutelako.

Horri dagokionez, bidezkoa da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 2ko 4/2008 Foru Legean proposatutako aldaketa egitea, dagokion letrarekin kasu berri bat sartuz.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

“Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina” izenburuko lehen artikuluko bigarren puntuko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Bi. 11 artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Zioak: Proiektuak xedatzen du merkataritza helburua eta nortasun juridikoa duten sozietate

zibilak –gehien-gehienak autonomoak eta enpresa txikiak dira– sozietatearen gaineko zergaren zergadunak izanen direla. Ez dugu uste aldaketa hori egokia denik aurretik ukitutakoei buruzko azterlan zorrotza eta haiekiko lan pedagogikoa egiten ez bada; izan ere, zerga aldaketa hori beren gain hartu ezinik suerta daitezke. Gainera ez zaie aukerarik eman beren sozietateetan bidezko jotzen dituzten aldaketak egiteko, errealitate berriari egokitzeari begira.

Ez du ematen oso logikoa denik administrazioak autoenplegua sustatzea eta aldi berean ekintzaile txiki hauei kargak ezartzea, beren negozioa bideraezin bihur dezakeen zerga-tasa bat ezarriz.

4. ZUZENKETA

GEROA BAI, EH BILDU, ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

«Xedapen gehigarria.

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Testu Bategina onesten duen ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen da, h) letra berria erantsiz 14. artikularen 2. idatz-zatiari; honako testua izanen du letra berriak:

“h) Obra literario, artistiko edo zientifikoak egitetik datozen etekinak, baldin eta haiek ustiatzeko eskubidearen lagapena egiten bada.”»

Zioak: Jarduera literario, artistiko edo zientifiko-eragatik etekinak Estatuko legedian jasotakoekin parekatzea, zeren eta hartan lan-etekintzat hartzen baitira haiek ustiatzeko eta haiek direla-eta jarduera ekonomikoak egiteko eskubidearen lagapena egiten denean, betiere idazlea bera denean ustiaketa horretaz arduratzen dena.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

“Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina” izenburuko lehen artikuluko bederatzigarren izatz-zatiko 4. lerrokada aldatzeko zuzenketa.

“35.4^a artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

4. Sozietateen gaineko zergaren araudian ezarritako zenbateko eta baldintzekin, subjektu pasiboak harreman publikoen arloan garatutako enpresa jardueren gastuak kengarriak izanen dira, jatetxe, ostalaritza, bidaia eta joan-etorrien zerbitzuei dagokienez, baina kontzeptu horien multzoaren gehieneko muga subjektu pasiboak zergaldian izandako diru-sarreraren bolumenaren 100eko 1 izanen da, jarduera bakoitzak zehaztua.”

Zioak: Testuan ohartarazten den bezala, 100eko 1ekoa da kontzeptu horiek sozietateen gaineko zergan duten muga.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

«55. artikulua. 3, 4, 5 eta 6.

“3. Gutxienerako pertsonal pasiboarengatik.

Oro har, gutxienerako pertsonala subjektu bakoitzeko 3.885 eurokoa izanen da urtean. Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 945 euro, hirurogeita bost urte edo gehiago duten subjektu pasiboentzat. Zenbateko hori 2.100 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b) 2.750 euro subjektu pasibo desgaituentzat, frogatzen badute % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa dutela eta % 65ekoa baino txikiagoa. Zenbateko hori 9.900 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen badu ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duela.

4. Gutxienerako familiarrarengatik:

Lehena. Gutxienerako familiarra honako hau izanen da:

a) Subjektu pasiboarekin bizi eta urteko errenta –salbuetsiak kenduta– ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa {*} baino altuagoa ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauetako bat:

– 945 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c) letran aurreikusitako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea izateko baldintzak betetzen baditu.

– 2.100 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina badu.

Letra honetan aurreikusitako errenten muga, aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi izanen da, familia unitate osorako.

b) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik goragoko urteko errentarik jasotzen ez badu, salbuetsiak bazter utzirik:

– 1.732 euro urtean, lehenbizikoagatik.

– 1.837 euro urtean, bigarrenagatik.

– 2.625 euro urtean hirugarrenagatik.

– 3.517 euro urtean, laugarrenagatik.

– 3.990 euro urtean, bosgarrenagatik.

– 4.620 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea badu ondoko c) letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 2.310 euro urtean. Zenbateko hori 4.200 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko murrizketa aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

c) Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, bere adina zein ere den, 2.420 euro urtean, arestiko letretan xedatutakoari jarraikiz bidezkoak diren zenbatekoen gain, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte: horien urtealdi-errentak, salbuetsiak kanpo, kasuan kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino handiagoak ez izatea, eta desgaitasunen bat izatea, eta duten desgaitasun maila % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa dela frogatzea. Zenbateko hori 8.470 eurokoa izanen da urtean, egiaztatutako desgaitasun maila % 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, aurreko lerrokadan aurreikusitako errenta-muga izanen da ondorio askotarako erren-

ta-adierazle publikoa halako bi, familia unitate osorako.

Aurreko b) eta c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxiengo familiarrak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean hainbanatuko da. Berdin jokatuko da ondorengo ahaideen zaintza partekatuaren kasuetan.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin, ondorengoarekin edo pertsona lagunduekin, gutxieneko familiarra gradurik hurbilenekoei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazleaz goitiko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoari aplikatuko baitzaie.

Subjektu pasibo bakoitzaren gutxieneko pertsonal eta familiarra idatz-zati honen eta aurrekoaren arabera aplikatu beharreko zenbatekoen batzura izanen da.

5. Ondorengo eta aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik.

Subjektu pasiboak Gizarte Segurantzarekiko kotizazioekin zergaldian ordaindutako kopuruak, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriaren % 15 ere, ondoko ezaugarriak dituzten pertsonak etxean zaintzeko lanetan aritzen direnekin formalizatutako kontratuen ondorioz:

a) Hamasei urtetik beherako ondorengoak.

b) Subjektu pasiboari eskubidea ematen diotenak artikuluko honetako 4.1 idatz-zatiko a) eta c) letretan aurreikusitako gutxieneko familiarra aplikatzeko, edo hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako terminoen arabera pertsona lagunduen izaera duten ahaideengatik murrizketa aplikatzeko.

c) Aurreko ahaideak, anai-arrebak eta osaba-izebak, artikuluko honen 4. idatz-zatiko lehen ataleko a) edo c) letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Murriztapen hori ere aplikatzen ahalko da subjektu pasiboa bera zaintzeko formalizatutako kontratuen kasuan, hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna frogatzen badu.

6. Artikulu honetan aipatutako murriztapenak ondoko arau hauei jarraikiz eginen dira:

Lehen. Lehenbizi aplikatuko dira 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoak, bai eta hamahirugarren, hamalagarren eta hamabosgarren xedapen gehigarrietan ezarritakoak ere.

Bigarrena. Eraitza positiboa bada, 3., 4., 5. eta 6. idatz-zatietan ezarritakoak aplikatuko da, haren mugaraino. Aplikatu gabeko kopuruak, halakorik balitz, zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia murriztuko luke, baina negatibo bihurtu gabe.

Eraitza negatiboa bada, 3., 4., 5. eta 6. zenbakietakoak zerga-oinarriaren aurrezkiaren zati berezia gutxitzeko aplikatuko dira, eta kasu honetan ere ezin izanen da negatiboa izan».

Zioak: Inguruabar pertsonal eta familiarrengatik murriztapenak berreskuratzea; izan ere, sistema horrek modu askoz ere egokiagoan neurtzen du zergadun bakoitzaren errenta, zeren eta aurrez bizitzeko gutxieneko pertsonal eta familiarren modura jotzen diren zenbatekoak deskontatzen baitira. Hartara, zergapetzen da zergadunaren benetako ahalmen ekonomikoa eta horrekin Nafarroako zergadunak Estatuko gainerakoek daukaten antzeko egoeran jarriko dira.

7. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

“Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina” izenburuko lehen artikuluari idatz-zati berria gehitzeko zuzenketa.

«Hemezortzi bis. 62.1.a) artikulua. 2017ko urtarilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Kenkaria ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik.

a) Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza dena edo izanen dena eskuratzeagatik kasuko zergaldian ordaindutako kopuruaren ehuneko 15, etxebizitza babestuzat kalifikatu bada eta eskuratzen den unean salmenta-prezioaren muga bat ezarria badu. Kenkari horren oinarri gehienezkoa urteko 7.000 eurokoa izanen da.

b) Zergaldian subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza dena edo izanen dena eskuratzeko ordaindutako zenbatekoen 100eko 15, baldin eta etxebizitza hori 10.000 biztanletik beherakoa den udalerrri batean kokatuta badago, betiere udalerrri horiek ez daudenean sartuta Nafarroako Lurralde Estrategiako 10. arloko 10.4 azpiarloaren barruan eta herri horretan etxebizitza babesturik ez dagoe-

nean. Kenkari honen gehieneko oinarria 7.000 eurokoa izanen da urtean”».

Zioak: Gure ustez, ohiko etxebizitza erosi edo zaharberritzeagatik aurreikusten den kenkaria mugatzen bada babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitza izatearen baldintzaren bidez, paradoxa bat gertatzen da, zenbait populazio gunetan etxebizitza librearen prezioa babes ofizialeko edo prezio tasatuko kalifikazioa duten etxebizitzena baino baxuagoa izan baitaiteke.

Horregatik, gure ustez garrantzitsua da etxebizitza babestu bat erosteko aukerarik egon ohi ez den landa eremuko udalerrietan, PFEZari buruzko indarreko arauaren 62. artikuluan kenkarako ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskuratzailleek (subjektu pasiboak, zergaldian oinarrien batura 24.000 eurotik beherakoa dutenak, oro har, edo 27.000 eurotik beherakoa, seme-alabak beren ardurapean baldin badituzte, eta abar), ezaugarri berdinak beteta, etxebizitza babestu bat eskuratu dezaketen eskuratzailleek dituzten eskubide berdinak izatea.

Horrez gain, uste dugu neurri hori landa garapena eta basamortutako zenbait herri sustatzeko neurritzat jo daitekeela.

8. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

«62.5. Lehen artikulua.

“Lehen. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboek diru-kopuru hauek kendu ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako laneko etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.290 euro.

b) 9.100,01 eta 12.050 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.290 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horiek ken 9.100 euro, eta horren emaitza bider 0,2.

c) 12.050 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro”».

Zioak: Lanarengatik kenkaria berreskuratzea; izan ere, errenta horiek PFEZean duten funtsezko pisua arindu nahi da, 2016rako gertatu zen murrizketa saihestuz. Ez zaie errenta horiei kalterik egiten, haiek baitira zergaren zama daramatenak.

9. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

“Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina” izenburuko lehen artikuluari idatz-zati berri bat gehitzeko zuzenketa.

«Hogei bis. 62.9 artikulua. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen du eragina.

“1. Kenkari pertsonal eta familiarrak.

a) Gutxieneko pertsonalarengatik

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatik kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko urteko 1.300 eurokoa izanen da. Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a') 350 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Zenbateko hori 620 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b') 800 euro desgaitasuna duten subjektu pasiboentzat, ehuneko 33 edo gehiagoko desgaitasuna eta ehuneko 65 baino gutxiagokoa dutela frogatzen badute. Zenbateko hori 2.475 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen badu ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duela.

b) Gutxieneko familiarrengatik:

Gutxieneko familiarrengatik kenkariak hauek izanen dira:

a') Subjektu pasiboarekin bizi eta urteko errenta –salbuetsiak kenduta– ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino altuagoa ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauetako bat:

– 300 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina badu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c') letran aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea sortzen badu.

– 525 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina badu.

Baldin eta aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenta-muga, familia unitate osorako, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi izanen da.

b') Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta

subjektu pasiboarekin bizi bada eta IPREM-ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik goragoko urteko errentarik jasotzen ez badu –errenta salbuetsiak bazter utzirik–:

- 600 euro urtean, lehenbizikoagatik.
- 730 euro urtean, bigarrenagatik.
- 1240 euro urtean, hirugarrenagatik.
- 1450 euro urtean, laugarrenagatik.
- 1900 euro urtean, seigarrenagatik eta hurrengoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea ematen badu ondoko c') letran aurreikusitako kenkariak baliatzeke.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 578 euro urtean. Zenbateko hori 1.050 eurokoa izanen da urtean, baldin eta nazioarteko adopzioak badira, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera.

Adopzio kasuetan, Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan aplikatuko da kasuko kenkaria.

c') Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, haren adina zein ere den, 700 euro urtean, arestiko letretan xedatutakoari jarraikiz bidezkoak diren zenbatekoez gain, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte: haien urteko errentak, salbuetsiak izan ezik, ez izatea handiagoak, kasuan kasuko zergaldian, IPREM-ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino, haiek desgaituak izatea eta duten desgaitasun-maila % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa dela egiaztatzea. Zenbateko hori 2.118 eurokoa izanen da urtean, egiaztatutako desgaitasun maila % 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, aurreko lerrokadan aurreikusitako errenta-muga izanen da ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa halako bi, familia unitate osorako.

Aurreko b') eta c') letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxieneko familiarrengatik kenkariak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Berdin jokatuko da ondorengo ahaideen zaintza partekatuaren kasuetan.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin, ondorengoarekin edo pertsona lagunduarekin, gutxieneko familiarrengatik kenkaria gradurik hurbilenekoei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazleaz goitiko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoei aplikatuko baitzaie.

c) Ondorengo eta aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik:

Kengarria izanen da subjektu pasiboak Gizarte Segurantzarekiko kotizazioengatik zergaldian ordaindutako kopuruen ehuneko 25, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriaren ehuneko 3,75 ere, ondoko ezaugarriak dituzten pertsonak etxean zaintzeko lanetan aritzen diren pertsonekin formalizatutako kontratuen ondorioz:

a') Hamasei urtetik beherako ondorengoak.

b') Subjektu pasiboari eskubidea ematen diotenen artikulua honetako b) letrako a') edo c') letretan aurreikusitako gutxieneko familiarrengatik kenkaria aplikatzeko, edo hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan pertsona lagunduaren izaera duten ahaideengatik kenkaria aplikatzeko.

c') Ezkontza bidezko aurreko ahaideak, anai-arrebak eta osaba-izebak, artikulua honen b) letrako a') edo c') letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Kenkari hori ere aplikatzen ahalko da subjektu pasiboa bera zaintzeko formalizatutako kontratuen kasuan, hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna frogatzen badu».

Zioak: PFEZaren kenkari pertsonal eta familia-koen zenbatekoak handitzen dira, zergadunen inguruabar pertsonal eta familia-koen, seme-alabak, hirugarren adina eta ezgaituak aintzat hartzeko. Hartara, errenta guztien zergak jaisten dira, batez ere errenta ertain eta baxuenak, 19.450 eurotik aurrera. Horrek progresibitate handiagoa ekarriko dio zergari.

Gainera, zerga horiek Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan daudenen ildoan

daude. Hori lagungarri gertatuko da bi lurraldeen arteko arrakala gutxitzeko, are Estatuarekikoa ere.

10. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hogeita hirugarren idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: 1 milioi euro eta 2 milioi euro bitarteko fakturazioa duten enpresei JEZaren kengarritasuna murriztea argi doa enpresa txikien aurka, eta haiexei eman behar zaizkien pizgarriak. Enpresa txiki eta ertainentzako murrizketa bat da, halako enpresak bultzatzeko politikaren aurka doana; izan ere, enpresa horiek dira enpresa-ehundura eta deslokalizatzen ez den enplegua sortzen dutenak.

11. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo artikulua hogeita zazpigarren idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“1. Kenkari pertsonal eta familiakoak:

a) Gutxieneko pertsonalarengatik

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatik kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko urteko 1.389 eurokoa izanen da. Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a') 334 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Zenbateko hori 612 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b') 800 euro desgaitasuna duten subjektu pasiboentzat, ehuneko 33 edo gehiagoko desgaitasuna eta ehuneko 65 baino gutxiagokoa dutela frogatzen badute. Zenbateko hori 2.475 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen badu ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duela.

b) Gutxieneko familiarrengatik:

Gutxieneko familiarrengatik kenkariak hauek izanen dira:

a') Subjektu pasiboarekin bizi eta urteko errenta –salbuetsiak kenduta– ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino altuagoa ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauetako bat:

– 300 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina badu edo, gazteagoa izan arren, idatz-zati honetako c') letran aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea sortzen badu.

– 525 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina badu.

Baldin eta aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenta-muga, familia unitate osorako, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi izanen da.

b') Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta IPREM-ondorio askotarako errenta-adierazle publikotik goragoko urteko errentarik jasotzen ez badu –errenta salbuetsiak bazter utzirik–:

– 585 euro urtean, lehenbizikoagatik.

– 724 euro urtean, bigarrenagatik.

– 1233 euro urtean, hirugarrenagatik.

– 1445 euro urtean, laugarrenagatik.

– 1888 euro urtean, seigarrenagatik eta hurrengoagatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea ematen badu ondoko c') letran aurreikusitako kenkariak baliatzen.

Horretaz gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 578 euro urtean. Zenbateko hori 1.050 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arauen eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko kenkaria aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan.

c') Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, haren adina zein ere den, 700 euro urtean, arestiko letretan xedatutakoari jarraikiz bidezkoak diren zenbatekoen gain, baldin eta ondoko baldintzak betetzen badituzte: haien urteko errentak, salbuetsiak izan ezik, ez izatea handiagoak, kasuan kasuko zergaldian, IPREM-ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa baino, haiek desgaituak izatea eta duten desgaitasun-maila % 33koa edo handiagoa eta % 65koa baino txikiagoa dela egiaztatzea. Zenbateko hori 2.118 eurokoa izanen

da urtean, egiaztatutako desgaitasun maila % 65ekoa edo handiagoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia unitate baten parte badira, aurreko lerrokadan aurreikusitako errenta-muga izanen da ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa halako bi, familia unitate osorako.

Aurreko b') eta c') letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideen sailkapen berean sartuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, umeordetze edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak.

Bi subjektu pasibok edo gehiagok baldin badute gutxieneko familiarreratiko kenkariak aplikatzeko eskubidea, zenbatekoa haien artean banatuko da zati berdinetan. Berdin jokatuko da ondorengo ahaideen zaintza partekatua kasuetan.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin, ondorengoarekin edo pertsona lagunduekin, gutxieneko familiarreratiko kenkaria gradurik hurbilenekei aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazleaz goitiko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoari aplikatuko baitzaie.

c) Ondorengo eta aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik:

Kengarria izanen da subjektu pasiboak Gizarte Segurantzarekiko kotizazioengatik zergaldian ordaindutako kopuruen ehuneko 25, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriaren ehuneko 3,75 ere, ondoko ezaugarriak dituzten pertsonak etxean zaintzeko lanetan aritzen diren pertsonekin formalizatutako kontratuen ondorioz:

a) Hamasei urtetik beherako ondorengoak.

b') Subjektu pasiboari eskubidea ematen diotenak artikuluko honetako b) letrako a') edo c') letretan aurreikusitako gutxieneko familiarreratiko kenkaria aplikatzeko, edo hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan pertsona lagundua izatera duten ahaideengatik kenkaria aplikatzeko.

c') Ezkontza bidezko aurreko ahaideak, anai-arrebak eta osaba-izebak, artikuluko honen b) letrako a') edo c') letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Kenkari hau aplikatu ahalko da, orobat, subjektu pasiboak bera zaintzeko sinatutako kontratuen kasuan, baldin eta hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina badu edo frogatzen badu bere minusbaliotasun maila % 65ekoa edo handiagoa dela.

Zioak: Zuzenketa honen helburua da Nafarroan ez dadila gerta inguruko ogasunetan baino egoera okerragoa.

12. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

“Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina” izenburuko lehen artikuluari idatz-zati berria gehitzeko zuzenketa.

«Hogeita hemeretzi bis. Hogeita batgarren bis xedapen iragankorra gehitzea. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu eraginak.

“Hogeita batgarren xedapen iragankorra, bis. A-tzera-eraginez erreklamatu ahalko dira edozein administrazio publikoren eskutik 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera jasotako familia-laguntzen eta -prestazioen salbuespenak, 7.k) artikuluko aipatzen dituenak, hain zuzen ere honakoei lotutakoak: jaiotza, adopzioa, ardurapeko seme-alabak, adingabeen harrera, zurztasuna, erditze edo adopzio anizkoitza eta minbiziak edo beste edozein gaixotasun larri jotako seme-alaba adingabeen zainketa.”»

Zioak: Hasiera batean, adingabeak zaintzeagatik prestazioak Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategineko II. tituluko IX. kapituluaren zeuden araututa, eta PFEZarengatik zergak ordaintzetik salbuetsita zeuden, zeren eta zerga horri buruzko testu bateginek, Nafarroan bezala estatuko legedian ere, horixe ezartzen baitzuten 7. artikuluko k) letran, non zuzeneko igorpena egiten baitzen II. tituluko aipatutako IX. kapituluaren araututako prestazioetara.

Hala eta guztiz ere, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari eta sozietateen gaineko zerga, pertsona ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga hein batean aldatzeari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legeak aldaketa bat izan zuen, zeina sartu baitzen azaroaren 15eko 35/2007 Legearen lehenengo xedapen gehigarriko lehenengo zenbakiaren bitartez; izan ere, azken horrek z) letra berria gehitu zien salbuespenen zerrendari, honako testu honekin:

“z) Edozein administrazio publikotatik jasotako familia- prestazio eta -laguntzak, jaiotzari, adop-

zioari, harrerari edo seme-alaba adingabeen zainketari lotutakoak.

Hartara, 2011tik aurrera, 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 30/2010 Legearen azken xedapenetako hogeita batgarrenaren bigarren idatz-zatian ezarritakoaren indarrez, seme-alaba adingabeak zaintzeagatiko prestazioak berariaz araututa geratu zirenean, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, orduan indarrean zegoen Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bategineko II. titularen IV. sexies kapitulu berriaren bitartez –eta horrelaxe egon dira 2016ko urtarrilaren 2ra arte–, Estatuan salbuetsita egoten jarraitu zuten, arestian aipatutako z) idatz-zatian ezarritakoaren indarrez.

Hala eta guztiz ere, antzeko letra bat, z) letra, bere garaian ez zenez sartu PFEZaren gaineko foru araudian, gertatu zen azken horretan Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren testu bategineko II. tituluko IX. kapitulurako bidalketa horri eutsi zitzaionez, eta jada hartan ez zeudenez jasota seme-alaba adingabeen zainketarengatiko prestazioak, azken horiek Nafarroan PFEZaren salbuespenik gabe geratu zirela.

Hortik aurrera, Nafarroako Ogasunak, zeinak horri buruz ezer esan ez baitu, 2016an erreklamazioak igorri dizkie minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten seme-alabak dituzten familia guztiei, kontzeptu hori dela eta 2011ko, 2012ko, 2013ko eta 2014ko ekitaldietan jaso zituzten prestazioak direla eta; hartara, Estatuko Zerga Ogasunaren aurrean azaldutako araudia dela-eta prestazio horiek salbuetsita dauden bitartean, Nafarroan, arau-desadostasun huts batengatik hala ez denez, zergak ordaintzeko eskatzen zaie inor ere akatsaz konturatu ez den lau urte horiengatik. Bitartean, familiak lasai zeuden aurreko egoeran jarraitzen zutela uste zutelako.

Horri dagokionez, bidezkoa da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko ekainaren 2ko 4/2008 Foru Legean proposatutako aldaketa egitea, dagokion letrarekin kasu berri bat sartuz.

Eta, horrenbestez, proposatzen da aldaketa hori sar dadila 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, ukitutako familiak ez daitezen okerrago egon egoera berean dauden Espainiako gainetakoak baino, eta Nafarroako Ogasunak erretiratu ahal ditzan 2012tik 2015era bitarteko urteak (biak barne) direla-eta igorri dituen erreklamazioak.

13. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluan gehitzeko zuzenketa: Ondarearen gaineko zerga.

«5. artikuluan 8, 9 eta 10 idatz-zatiak gehitzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

8. Pertsona fisikoaren ondasun eta eskubideak, bere enpresa- edo lanbide-jarduera betetzeko beharrezkoak izanez gero, betiere jarduera hori subjektu pasiboak berak azturaz, pertsonalki eta zuzenean gauzatzen bada eta bere errenta-iturri nagusia bada. Errenta-iturri nagusia kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko artikuluko honetako 9. idatz-zatiak aipatzen dituen entitateetan gauzatzen diren zuzendaritza-eginkizunen ordainsariak, ezta aipatu entitateetan parte hartzetik heldutako beste edozein ordainsari ere.

Salbuespena aplikatuko da enpresa-jarraitutasuna badagoenean baina, arrazoi ekonomikoak tarteko, errenta-iturri nagusia izatearen baldintza ez dagoenean betetzerik galerak daudelako edo jardueraren etekin positiboek modurik ematen ez dutelako errenta-iturri nagusia izateko.

Salbuetsita egonen dira, halaber, bi ezkontideen ondasun eta eskubide komunak, bi ezkontideetako edozeinen enpresa- edo lanbide-jarduera garatzeko erabiltzen direnean, betiere aurreko lerrokadako baldintzak betetzen badituzte.

9. Entitateen partaidetzen gaineko jabetza osoa, jabetza soila eta biziarteko gozamen-eskubidea, entitate horiek merkatu antolatuetan kotizatu ala ez, baldintza hauek guztiak gertatzen badira:

a) Entitateak, sozietate bat izan nahiz ez izan, enpresa- edo lanbide-jardueraren bat benetan gauzatzea eta jarduera nagusitzat ez izatea ondare higigarri edo higiezinen baten kudeaketa. Entitate batek ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzen duela ulertuko da, eta horrenbestez, enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten ez duela, ekitaldi sozialeko 90 egun baino gehiagotan ondoko baldintzetako edozein gertatzen denean:

a') Bere aktiboaren erdia baino gehiago balorek osatua izatea, edo bestela

b') Bere aktiboaren erdia baino gehiago ez egotea lanbide- edo enpresa-jarduerari atxikia.

Idatz-zati honetan adierazitako ondorioetarako, enpresa- edo lanbide-jarduerarik ba ote den edo ondare-elementu bat halako jarduera bati lotuta ote dagoen finkatzeko, Pertsona Fisikoen Errenta-

ren gaineko Zergan xedatutakoari segituko zaio. Nolanahi ere, ulertuko da entitate batek enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten duela, baldin eta aurreko a') eta b') azpiletrak aplikatuz ezartzen bada ez duela ondare higigarri nahiz higiezinik kudeatzen.

Bai aktiboaren balioa, bai jarduera ekonomiko- ei loturik ez dauden ondare-elementuena, kontabilitateak adierazten duena izanen da, baldin eta horrek sozietatearen egiazko ondare-egoera zintzoki adierazten badu.

Aurreko jardueri atxikirik ez dauden balore edo ondare-elementuek osatutako aktibo-partea zehazteko:

Lehena. Honako balore hauek ez dira kontatuko:

Legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko edukitzen direnak.

Enpresa- edo lanbide-jarduerak egitearen ondorioz ezarritako kontratu-harremanetatik sorturiko kreditu-eskubideak biltzen dituztenak.

Balore-sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.

Gutxienez ere bozketa-eskubideen % 5 ematen dutenak eta partaidetzaren zuzendaritzarako eta kudeaketarako edukitzen badira, betiere, horretarako, baliabide material eta langile aski badaude eta parte harturiko entitatea letra hone-tan agertzen ez bada.

Bigarrena. Ez dira balore gisa kontatuko, ez eta enpresa- nahiz lanbide-jardueri atxikita ez dauden elementu gisa ere, eskurapen-prezioa entitateek lorturiko etekin banatu gabeen zenbatekoa baino txikiagoa dutenak, baldin eta etekin horiek jarduera ekonomikoen ondoriozkoak badira; horretarako muga izanen da bai urte berean bai azken hamar urteetan lorturiko etekinen zenbatekoa. Ondorio horietarako, aurreko lerrokadako azken zatian aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak enpresa- edo lanbide-jardueretatik etorritako etekintzat hartuko dira, baldin eta parte hartutako entitateak lortutako diru-sarreraren % 90, gutxienez, enpresa- edo lanbide-jarduerak egitetik heldu badira.

b) Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza % 5 izatea, gutxienez, banaka zenbatua, edo % 20, batera zenbaturik ezkontideak, aurreko edo ondorengo ahaideek edo hirugarren gradurainoko albo-ahaideek dutenarekin, berdin delarik ahaidetasuna odolkidetasunetik, ezkontza-ahaidetasunetik edo seme-alabaordeztatik etortzea.

c) Subjektu pasiboak entitatean zuzendaritza eginkizuna betetzea egiazki, eta horretatik jasotzen duen ordainsaria enpresa- zein lanbide-etekin eta lan pertsonaleko etekin guztien % 50 baino gehiagokoa izatea.

Aurreko kalkulua egiteko, artikuluko honetako 8. idatz-zatiak aipatzen duen enpresa-jardueraren etekinak ez dira zenbatuko enpresa- edo lanbide-jardueretatik eta lan pertsonaletik bereganatutako etekin gisa.

Entitatean duen partaidetza aurreko letran aipatutako pertsona batekin edo batzuekin baterakoa bada, gutxienez ahaidetasun-taldeko pertsona batek bete beharko ditu zuzendaritza-zereginetara eta haren ondoriozko ordainsariei buruzkoak, pertsona horiek guztiek salbueste-eskubidea izatearen kalterik gabe.

Salbuesteak partaidetzen balioari aplikatuko zaio –balio hori foru lege honen 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauekin bat finkatuko da– parte honetan soilik: lanbide- edo enpresa-jarduera gauzatzeko behar diren aktiboetako jarduera horretatik heldu diren zorrak kendu ondoren ateratzen den kopuruaren eta entitateak duen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokiona. Arau horietatik aplikatuko dira parte hartutako entitateen partaidetzak baloratzean, entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazte aldera.

10. Erregelamendu bidez zehaztuko dira honakoak:

a) Enpresa- edo lanbide-jarduera garatzeko behar diren ondasun, eskubide eta zorrei dagoen salbuespena aplikatu ahal izateko betebeharrak.

b) Entitateetako partaidetzek bete behar dituzten baldintzak”».

Zioak: Familia-enpresaren enpresa-ondareari kargak ezartzea, jarduera, inbertsioa eta enplegua sortzen duten ondasunak zergapean jarritz, Nafarroan baizik ez da gertatzen gaur egun. Gure inguruko inongo herrialdeetan, ez eta Espainiako gainekoan ere, ez dira ondasun horiek zergapetzen. Horrenbestez, zama larria da gure familia-enpresen lehiakortasunerako, deslokalizazio arazo larriak eta erakargarratasun eza eragiten dituenak.

14. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

“Ondarearen gainek Zergari buruzko Foru Legea” izenburuko 2. artikuluari idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

«Bi bis. 28.1 artikulua. Likidazio oinarria. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondo-riak.

“1. Likidazio-oinarria kalkulatzeko, salbuetsita dagoen gutxienekoagatik zerga-oinarria 800 euro”».

Zioak: Proposatzen da salbuetsitako gutxienekoa 800.000 eurokoa izan dadila, gure inguruko herrialdeetan den bezala. 550.000 euroko kopuruari eusteak presio fiskala areagotzen du garrantzi eskaseko ondareetan eta, batez ere, ondarearen gaineko presio fiskalean diferentzia handia sortzen du inguruko gainerako lurraldeetako.

Iruñean, 2016ko azaroaren 30ean

15. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Ondarearen gaineko Zerga

«28. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea.

“1. Likidazio oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarria 800.000 euro murriztuko da salbuetsita dagoen gutxienekoagatik”».

Zioak: Proposatzen da salbuetsitako gutxienekoa, gaur egun 550.000 eurokoa dena, 800.000 eurokoa izan dadila, gure inguruko herrialdeetan den bezala. Horrela saihesten da, neurri batean, Nafarroan ondarearen gaineko karga handiagoa egotea Espainiako gainerako lurraldeetan baino.

16. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Ondarearen gaineko Zerga.

«31.2. artikulua. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hartuko du indarra.

“2. Bi kuoten baturak 1. idatz-zatian aipatzen den muga gainditzen baldin badu, zerga horren kuota gutxituko da muga horretara iritsi arte; murriztapen hori ezin izanen da % 75 baino handiagoa izan”».

Zioak: Gaur egun, ondarearen gaineko zergaren eta PFEZaren arteko zergapetze konbinatuak, lehenengoan % 35eko gutxieneko zergapetze bat ezartzen duenak, zergapetze handiagoa sortzen du, oro har, gure erkidegoan, eta batzuetan zergakarga proportzio gabea eta konfiskaziokoa. Kontua da horrelako eraginak saihestea. Estatuan, zerga hori dagoen autonomia erkidegoetan, gutxieneko zerga % 20koa da; Bizkaian, berriz, % 25ekoa da.

17. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Ondarearen gaineko Zerga

33. artikulua kentzea. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hartuko du indarra.

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etortzea.

18. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

“Ondarearen gainek Zergari buruzko Foru Legea” izenburuko 2. artikuluari idatz-zatia gehitzeko zuzenketa.

“Bi bis. 33 artikulua. Kuotaren kenkariak. 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondo-riak.

“1. Zergaren kuotatik kenduko da ondoko letretan jasotzen diren ondasun eta eskubideen balioari dagokion zati proportzionalaren ehuneko 100:

a) Subjektu pasiboaren ondasun eta eskubideak eta senar-emazteenak direnak, enpresa- edo lanbide-jarduera betetzeko beharrezkoak izanez gero, betiere jarduera hori subjektu pasiboak berak azturaz eta zuzenean burutzen badu eta aipatu jarduera burutzen duenaren errenta-iturri nagusia bada.

Errenta-iturri nagusia determinatzeko, ez dira kontuan hartuko zenbaki honetako b) letrak aipatzen dituen entitateetan burutzen diren zuzendari-tza-eginkizunen ordainketak, ezta aipatu entitateetan parte hartzetik heldutako beste edozein ordainketa ere.

Kenkaria aplikatuko da enpresa-jarraitutasuna badagoenean baina, arrazoi ekonomikoak tarteko, errenta-iturri nagusia izatearen baldintza ez dagoenean betetzerik galerak daudelako edo jardueraren etekin positiboek horretarako modurik ematen ez dutelako.

b) Entitateen partaidetzen jabetza osoa, jabetza soilak eta biziarteko gozamen-eskubidea, merkatu antolatuetan kotizatu nahiz ez, baldintza hauek gertatzen badira:

Lehena. Entitateak, sozietatea izan nahiz ez izan, enpresa-jardueraren bat benetan burutzea eta ez dezala izan jarduera nagusiztat ondare higigarri edo higiezin baten kudeaketa. Entitate batek ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzen duela ulertuko da, eta horrenbestez, enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten ez duela, ekitaldi sozialeko 90 egun baino gehiagotan ondoko baldintzetako edozein gertatzen denean:

a) Bere aktiboaren erdia baino gehiago baloreek osatua izatea.

b) Bere aktiboaren erdia baino gehiago ez egotea lanbide- edo enpresa-jarduerari atxikia.

b) letran adierazitako ondorioetarako, enpresa- edo lanbide-jarduerarik ba ote den edo ondare-elementu bat halako jarduera bati lotuta ote dagoen finkatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan xedatutakoari segituko zaio. Nolanahi ere, ulertuko da entitate batek enpresa- edo lanbide-jarduera bat egiten duela, baldin eta aurreko a) eta b) azpiletrak aplikatuz ezartzen bada ez duela ondare higigarri nahiz higiezin kudeatzen.

Bai aktiboaren balioa, bai lanbide- edo enpresa-jarduerari loturik ez dauden ondare-elementuena, kontabilitatearen ondoriozkoak izanen dira, baldin eta horrek entitatearen ondare egoera zintzoki jasotzen badu.

Aurreko jarduerari atxikirik ez dauden balore edo ondare-elementuek osatutako aktibo-partea zehazteko:

Lehena. Honako balore hauek ez dira kontatuko:

– Legezko eta erregelamenduzko betebeharrak betetzeko edukitzen direnak.

– Enpresa- edo lanbide-jarduerak egitearen ondorioz ezarritako kontratu-harremanetatik sorturiko kreditu-eskubideak biltzen dituztenak.

– Balore-sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.

– Gutxienez ere boto-eskubideen ehuneko 5 ematen dutenak, partaidetzaren zuzendaritza eta

kudeaketarako edukitzen badira, baldin eta, horretarako, kasuko baliabide materialak eta langileak antolatuak izan badira eta parte hartutako entitate letra honetan jasota ez badago.

2. Ez dira balore gisa kontatuko, ez eta lanbide- edo enpresa-jarduerari lotu gabeko ondare-elementu gisa ere, erosketa-prezioa entitateek lorturiko mozkin banatu gabeen zenbatekoa baino handiagoa ez daukatenak, baldin eta mozkin horiek lanbide- edo enpresa-jardueraren ondoriozkoak badira. Muga gisa hartuko da urte horretan berean eta azken hamar urteetan lorturiko mozkinen batzura.

Horretarako, aurreko lerroaldeko azken zatian aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak lanbide- edo enpresa-jardueretatik etortutako mozkinen modu berean tratatuko dira, baldin eta parte hartutako entitateak lortutako diru-sarreraren gutxienez ehuneko 90 lanbide- edo enpresa-jardueretan aritzetik heldu badira.

2.a. Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza 100eko 5ekoa izatea gutxienez, banaka zenbatua, edo 100eko 20koa, ezkontideak edo hirugarren graduko aurrekoek, ondorengoek edo albo-ahaideek dutenarekin batera zenbatuz gero, ahaidetasuna odolkidetasunetik, ezkontzatik edo adopzioetik datorrela.

3.a. Subjektu pasiboak entitatean zuzendaritza-eginkizunak betetzea egiazki, eta horren truke jasotzen duen ordainsaria handiagoa izatea lanbide- edo enpresa-jardueretatik eta lan pertsonaletik guztira bereganatzen dituen etekinen 100eko 50 baino.

Aurreko kalkulua egiteko, 1. zenbaki honetako a) letrak aipatzen duen enpresa-jardueraren etekinak ez dira zenbatuko enpresa- edo lanbide-jardueretatik eta lan pertsonaletik bereganatutako etekin gisa.

Entitatean duen partaidetza aurreko baldintzan aipatutako pertsona batekin edo batzuekin batera bada, zuzendaritza-eginkizunak eta haien ondoriozko ordainsariak ahaideen taldeko pertsona batek bederen izan beharko ditu, deusetan galarazi gabe kenkarirako eskubidea denek izatea.

Kenkariak partaidetzen balioa baizik ez du hartuko –balio hori 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauarekin bat finkatuko da–, hain zuzen, lanbide- edo enpresa-jarduera burutzeko behar diren aktiboak jarduera horretatik heldu diren zorrak kendu ondoren ateratzen denaren eta entitateak duen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian. Arau horiexek aplikatuko dira entitate parte hartutako partaidetzen balora-

zioan, entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazteko.

2. Erregelamenduz ezarri ahalko dira:

a) Enpresa-jarduera bat garatzeko behar diren ondasun, eskubide eta zorrei dagokien kenkaria aplikatu ahal izateko betebeharrak.b) Entitateetako partaidetzek bete behar dituzten baldintzak”».

Zioak: Bai Estatuan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, ezarrita dago enpresen produkzio-ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak edo ondasun horiek ordezkatzeko dituzten partaidetzak salbuetsita daudela zergatik. Hori guztiz logikoa da, zergak ez dituelako kargatu behar enpresen ondare produktiboak.

Egungo legeak karga partzial bat ezartzen du ondare horiek direla eta, eta familia-enpresak ukitzen ditu bereziki; izan ere, horietan dira lurraldean hobekien sustraituta daudenak eta enpresaburua haixetan dago inplikatuena aberastasuna sortzeko, ingurune berean mantentzeko eta haiekin aurrera jarraitzeko. Tratamendu hori, gainera, bakarra da Europa osoan, zeren eta, aipatu den bezala, ondasun guztiak salbuesten baitute karga hori.

Horrenbestez, proposatzen da kenkari partzialaren ordezkariaren sistema ezartzea, zeina indarrean baitzen Nafarroan 2015a baino lehen; izan ere, azken horrek bateragarri

egiten du ondasun horien zergaren salbuespena eta zergaren progresibotasuna, eta gainera, amaiera ematen die erregio mugakideekiko konparaziozko bidegabekeriari eta haren ondorio kaltegarriari.

19. ZUZENKETA

**GEROA BAI, EH BILDU, ETA
PODEMOS-AHAL DUGU
PARLAMENTU-TALDEEK
ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

Lehenengo artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen gehigarria

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren edo Lizentzia Fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legearen 1. eranskina aldatzen da, eta 86. elkartzearen barruan (lanbide liberal, artistiko eta literarioak) 863. talde berria sartzen da. Honako hau da testua:

863. multzoa. Idazleak Kuota: 18.300 pezeta”

Zioak: Idazleentzako epigrafe bat ezartzea, halakorik ez baitute gaur egun.

Foru Lege proiektua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa. Proiektu hori 2016ko azaroaren 7ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua 1. puntuko a) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honako hau izanen da:

“a) Pertsona juridikoak, lege honen 7. artikuluan ezarritakoaren arabera zergak errenten esleipenaren araubidean ordaintzen dituzten sozietate zibilak izan ezik”

Zioak: Proiektuak xedatzen du merkataritza helburua eta nortasun juridikoa duten sozietate zibilak sozietatearen gaineko zergaren zergadunak izanen direla.

Ez dugu uste aldaketa hori egokia denik aurretik ukitutakoei buruzko azterlan zorrotza eta haiekiko lan pedagogikoa egiten ez bada; horiek guztiak langile autonomoak eta enpresa txikiak dira, eta zerga aldaketa hori beren gain hartu ezinik suerta daitezke. Gainera ez zaie aukerarik eman beren sozietateetan bidezko jotzen dituzten aldaketak egiteko, errealitate berriari egokitzeari begira.

2. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamaikagarren xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa: Bazkideen tributazioa, merkataritza xedea errenta-egozpenaren araubidean duten sozietate zibiletan.

Zioak: Kontraesan bat da berez.

3. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Lehenengo xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa. Zerga hau duten sozietate zibilak eta eraldaketako nekazaritza sozietateak.

Zioak: 10. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketarekin bat etortzea.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa: Sozietate zibilak eta eraldaketako nekazaritza sozietateak desegitea.

Zioak: 10. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketarekin bat etortzea.

5. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa: Sozietateen gaineko zerga duten sozietate zibilak.

Zioak: 10. artikuluko 1. idatz-zatiko a) letra aldatzeko zuzenketarekin bat etortzea.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

“64 bis. artikulua. Baloreak eskuratzegatikoko kenkaria.

38. artikuluan aipatzen diren baloreak eskuratzeko egiten diren inbertsioek, baldin eta entitateen kapital sozialean edo funts berekietan 100eko 50etik beherakoa ez den partaidetza ematen badute, beraiekin ekarriko dute kuota likidoan inbertsio horien zenbatekoaren % 10eko kenkaria aplikatu ahal izatea”

Zioak: Nafarroako enpresak gainerako ogasunetakoak baino egoera okerragoan ez egotea.

7. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

37.1. artikuluko laugarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Ezohiko mozkinak berrinbertitzeagatik salbuespena zabaltzea.

37. artikulua. Salbuespena, ezohiko mozkinak berrinbertitzeagatik.

1. ...

(*Laugarren lerrokada*) “Bestetik, ez da zerga-oinarrian sartuko kostu bidezko eskualdaketa horietan lortutako errenten 100eko 50a, haien zenbatekoa berriz inbertitzen bada, epe berdinetan, 38. artikulua aipatzen diren baloreak erosteko. Aurrekoa gorabehera, ez da inongo errentarik sartuko eskuratzen direnak entitateen kapital sozialaren edo funts berekien 100eko 50 baino txikiagoa ez den partaidetza ematen duten baloreak direnean”.

Zioak: Nafarroako enpresak hazteko pizgarria ematea.

8. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

“17 bis. artikulua. Finantza-merkataritzaren funtsaren tratamendu fiskala.

38. artikuluan aipatzen diren partaidetzak eskuratzen direnean, partaidetzaren eskuratze prezioaren eta eskuratze egunean entitate partaidetuak (partaidetzaren proportzioan) daukan ondare garbiaren arteko diferentzia honako hauei egotziko zaie: entitatearen ondasun eta eskubideei, Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta hura garatzen duten arauetan ezarritako integrazio globalaren metodoa aplikatuz. Bestetik, egotzi ez den diferentzia zatia zerga-oinarritik kendu ahalko da, urtero zenbateko horren ehuneko hamar gehienez, ezertan galarazi gabe aplikagarri diren kontabilitate arauetan ezarritakoa.

Zenbateko horretatik kenduko da, artikulu honetan araututako kenkaria aplikatuta ateratzen den oinarria zehazte aldera, partaidetzaren aurreko jabeek lortutako errenten zenbatekoa, baldin eta errenta horiei aplikatu bazaie foru lege honen 35. artikuluan xedatutakoa.

2. Partaidetzak eskuratu zaizkioneko entitateak, bere aldetik, beste batean parte hartzen due-

nean, aintzat hartu beharko dira urteko kontu bate-ratuetatik ateratzen diren ondare garbia eta ondasun eta eskubideak; betiere, kontu horiek eginen dira Merkataritza Kodean eta hura garatzeko arauetan ezarritako irizpideak aplikatuz.

4. Merkatu arautu baten bitartez eskuratu ez diren partaidetzak direnean, artikulu honetan xedatutakoa aplikatzekoa izanen da partaidetza eskuratzen duen entitatea ez dagoenean eskualdaketa egiten duen pertsonarekiko edo entitatearekiko Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako kasuetako batean.

Ildatz-zati honetan ezarritako baldintza ez da aplikatuko eskualdaketa egiten duen pertsonak edo entitateak partaidetza eskuratzean ordaindutako salneurriari dagokionez, aldi berean partaidetza hori eskuratu denean pertsona edo entitate horiek partaidetza hori dela-eta Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako kasuetako bakarrean ere ez zeudenean.

5. Artikulu honetan xedatuaren indarrez kendutako kopuruak zerga-oinarria gehituko dute eskualdaketarik izatekotan, eta inolaz ere ezin izanen da aplikatu foru lege honen 35. artikuluan ezarritakoa.

6. Partaidetzen eskualdaketak foru lege honen 34.d) artikuluan xedatuari atxikitzen ez zaizkion errentak sortzen baldin baditu, artikulu honetan xedatutakoaren indarrez kendutako kopuruak ez dira sartuko zerga-oinarrian sartu ez diren errenten artean”.

Zioak: Nafarroako enpresak hazteko pizgarria ematea.

9. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

45.3. artikulua aldatzea. Zenbatekoa eta gauzatzea.

“3. Inbertsioetarako Erreserba Bereziaren materializatzea ibilgetu materialaren elementu berrietan eta higiezinetak inbertsioetan egin beharko da, ustiapen edo jarduera ekonomiko baten garapenari lotutako lurra izan ezik. Halaber, materializatze horretarako balioko du 38. artikuluan aipatzen diren baloreen eskuratzeak, baldin eta entitateen kapital sozialean edo funts berekietan 100eko 50etik beherakoa ez den partaidetza bat ematen badute”.

Zioak: Nafarroako enpresak hazteko pizgarria ematea.

10. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

61. bis artikulua berri bat gehitzeko zuzenketa.

“61 bis. artikulua. Ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte-hartzea.

1. Zerga honen edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, establezimendu iraunkor baten bidez operatzen badute eta beste zergadun batzuek egindako ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzen badute —betiere, horiek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 61. artikuluan kenkarietarako eskubidea sortzeko baldintzak bete beharko dituzte—, eskubidea izanen dute kuota likidoan kenkari bat egiteko, artikulua honetan ezarritako baldintzekin eta betekizunekin, eta kenkari hori bateraezina izanen da, guztiz nahiz partzialki, zergadun horiek aipatutako arauetan ezarritakoa aplikatuta eskubide zituzten kenkariekin.

2. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, nahitaezkoa izanen da ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duten zergadunek eta haien finantzaketan parte hartzen dutenek alde aurretik finantzaketa-kontratu bat izenpetzea, non, besteak beste, honako xehetasunak zehaztuko dituzten:

a) Proiektuan parte hartzen duten zergadunen identitatea.

b) Ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuaren deskribapena.

c) Proiektuaren aurrekontua.

d) Proiektua finantzatzeko modua, bereizirik adierazita proiektua egiten duen zergadunak jartzen dituen kopuruak, finantzaketan parte hartzen duen zergadunak jartzen dituenak eta finantza-erakundeen kredituei, diru-laguntzei eta bestelako laguntza-neurrii dagozkienak.

e) Erregelamenduz ezartzen diren gainerako gaiak.

3. Proiektuaren finantzaketan parte hartzen duten zergadunek ezin izanen dute eskuratu jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubiderik, ez eta bestelakorik ere, proiektu horren emaitzak direla-eta; izan ere, haien jabetza, edonola ere, proiektua egiten duen zergadunarena izanen da.

4. Zergadunek artikulua honetan ezarritako araubidea aplikatzearen alde egiten dutenean, ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko

proiektua egiten duen zergadunak ez du eskubiderik izanen Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 61. artikuluan ezarritako kenkariari dagokien guztizko zenbatekoa edo zenbateko partziala aplikatzeko, eta horren ordez, haren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak eskubidea izanen du bere auto-likidazioan frogatzeko aipatutako arauetan ezarritako kenkaria, eta kenkari horren zenbatekoa zehaztuko da proiektua egiten duen zergadunari aplikatuko zitzaizkion baldintza beretan.

Aurrekoa gorabehera, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak ezin izanen du aplikatu, kuota-terminoetan, proiektua finantzatzeko ordaindu dituen diru-kopuruak bider 1,20 egitearen biderkadurari dagokion zenbatekotik gorako kenkaririk. Gaindikina ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak aplikatu ahalko du.

5. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatzeko, nahitaezkoa izanen da aurreko 2. idatz-zatiak aipatzen duen finantzaketa-kontratuaren sinadura baino lehen, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 61. artikuluko 5. idatz-zatian aipatzen den txostena lortu izana. Txosten hori, aipatutako kontratuarekin batera, komunikazio baten bitartez aurkeztu beharko zaio zerga administrazioari, bai ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak, bai finantzaketan parte hartzen duenak izenpetuta. Betiere, proiektuaren garapena hasten den zergaldia amaitu baino lehen aurkeztu beharko da, eta erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan”.

Zioak: Euskal Autonomia Erkidegoan bezala, indar handiagoz bultzatu nahi da I+G, hura murriztu beharrean, Nafarroan gertatzen ari den bezala. Bestela, lehiakortasuna eta Nafarroa enpresentzat erakargarri egiteko eta enpresak Nafarroan ezartzeko aukerak murriztuko dira. Bat dator, gainera, 53. estrategiarekin.

11. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

39. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“39. artikulua. Zenbait aktibo ukiezinetatik ateratzen diren errenten murriztapena.

1. Patenteak, marrazki edo ereduak, planoak, formulak edo prozedura sekretuak erabili edo ustiatzeko eskubidea lagatsetik edo esperientzia industrialei, merkataritzakoei edo zientifikoei dagozkien informazioen —markak eta izen komer-

tzialak izan ezik— gainera eskubideak lagatzen heldu diren errenta positiboak zerga-oinarrian ez sartzeko aukera egonen da, hurrengo koefizientearen emaitza bider ehuneko 70 egitetik ateratzen den portzentajera bitarte:

Zenbakitzailean, aktiboaren sorkuntzarekin zuzenean lotutako entitate lagatzaileak eginiko gastuak,

harekin lotu gabeko hirugarrenak azpikontratzearen ondorioz datozenak barne. Gastu horiek ehuneko 30 igoko dira eta zenbakitzailea ezin izanen da izan, inola ere, izendatzailea baino handiagoa.

Izendatzailean, aktiboaren sorkuntzarekin zuzenean lotutako entitate lagatzaileak eginiko gastuak, harekin lotutako eta lotu gabeko hirugarrenak azpikontratzearen ondorioz datozenak barne eta, behar bada, aktibo ukiezinak erostearen ondoriozkoak barne.

Aurreko koefizientean ez dira sartuko, inola ere, finantza gastuak, higiezinaren amortizaziokoak edo aktiboaren sorkuntzarekin zuzenean loturik ez dauden beste gastuak.

Idatz-zati honetan aurreikusitako murriztapena aplikatuko zaie, halaber, bertan aipatutako aktibo ukiezinak eskualdatzearen ondoriozko errenta positiboak, eskualdaketa loturik gabeko entitateen artean denean eta eskuratzaileak a) eta b) letratan ezarritako baldintzak betetzen dituzenean.

2. Aurreko idatz-zatian aurreikusitako murriztapena aplikatzeko, ondoko baldintza hauek bete beharko dira:

Lagapen-hartzaileak jarduera ekonomiko batean baliatzea erabilera edo ustiapeneko eskubideak, eta baliatze horren emaitzak ez daitezela gauzatu lagapen-hartzaileak egiten duen ondasun-ematean edo zerbitzu prestazioan, baldin eta zergen arloan kengarriak diren gastuak sortzen badituzte entitate lagatzailean, eta, betiere eta, azken kasu horretan, entitate hori lagapen-hartzailearekin lotuta badago.

Lagapen-hartzaileak egoitza ez izatea tributazio gabeko edo paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralde batean, salbu eta Europar Batasuneko kidea den estatu batean egoitza duenean eta zergadunak frogatzen duenean haren eraketak arrazoi ekonomiko baliadunak erantzuten diela eta jarduera ekonomikoak egiten dituela.

Lagapen kontratu berean zerbitzuen prestazio osagarriak sartzeko direnean, zerbitzu horiei dagoen kontraprestazioa zehaztu beharko da kontratuan.

Entitateak beharrezkoak diren kontabilitate erregistroak izatea, lagapenaren xedeko aktiboak dagozkien diru-sarrera eta gastuak, zuzenekoak, zehaztu ahal izateko.

3. Aktibo ukiezinak lagatzen direnean, artikuluhonetan xedatutakoaren ondorioetarako, entitatearen balantzean aktiboak aitortua egon ala ez, errentatzat joko da honako hauen arteko diferentzia: alde batetik, aktiboak erabili edo ustiatzeko eskubidearen lagapenetik heldu diren ekitaldiko diru-sarrerak eta, bestetik, kentzen diren kopuruak 17. artikulua aplikatzeagatik eta lagatutako aktiboaren lotura zuzena duten ekitaldiko gastuengatik.

4. Murriztapen hori kontuan hartu beharko da 56.1.b) artikulua aipatzen duen kuota osoaren zenbatekoa zehaztearen ondorioetarako.

5. 3. idatz-zatian ezarritakoa aplikatuta ateratzen den zergaldiko errenta negatiboa bada, era honetan integratuko da:

Aurreko zergaldietan zergadunak ez badu eskuratu errenta positiborik artikuluhonetan aurreikusitako murriztapena aplikatu dienik, aipatu errenta negatiboa erabat integratuko da.

Ondoko zergaldietan eskuratzen diren errenta positiboak erabat integratuko dira errenta negatibo haien zenbatekora ailegatu arte. Soberakinari 1. idatz-zatitik ateratzen den murriztapen-portzentajea aplikatu dakioko.

Aurreko zergaldietan zergadunak eskuratu badu errenta positiborik artikuluhonetan aurreikusitako murriztapena aplikatu dienik, aipatu errenta negatiboa murriztuko da 1. idatz-zatia aplikatuz ateratzen den portzentajearen.

Letra honetan xedatutakoa aplikatuko da zerga-oinarrian integratu beharreko errenta negatiboak, aurreko zergaldietan integratutako errenta positiboaren zenbatekoa gainditzen ez duten bitartean, artikuluhonetan aurreikusitako murriztapena aplikatuta. Soberakina osotara integratuko da zerga-oinarrian eta, behar bada, a) letrako bigarren letraldean aurreikusitakoa aplikatuko da errenta positiboak eskuratu ondoko zergaldietan.

6. 5. idatz-zatian ezarritako tratamendu bera aplikatuko zaie 1. idatz-zatiak aipatu aktibo ukiezinak eskualdatzearen ondoriozko errentei, alde aurretik haien ustiapena edo erabilera laga bada, eta lagatzean eskuratutako errentei artikuluhonetan araututako murriztapena aplikatu bazaie.

7. Murriztapen hau aplikatzearen ondorioetarako, eragiketarako egin aurretik, zergadunak zerga administrazioari eskatu ahalko dio balorazioerako alde aurreko erabakia har dezala, aktiboak laga-

tzetik eta gastu elkartuetatik, baita eskualdaketa sortutako errentetatik ere, heldu diren diru-sarrerei dagokienez. Eskaera horrekin batera baloraziorako proposamen bat aurkeztuko da, merkatuko balioan oinarritua.

Proposamena ezetsizat jo ahalko da ebazpen epea bukatutakoan. Erregelamenduz finkatuko da idatz-zati honetan aipatu baloraziorako alde zuzeneko erabakiak ebazteko prozedura”

Zioak: Aurreko zuzenketaren justifikazio bera: proiektuaren testuak pizgarria murrizten du Nafarroan, Espainiako gainerako lurraldeetan ez bezala.

12. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hamargarren xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa.

“Hamargarren xedapen iragankorra. Jabetza industrialaren edo intelektualaren ustiaketa-eragatik murriztapenaren araubide iragankorra.

1. Entitatearen jabetza industrialaren edo intelektualaren ustiaketarako edo erabilerarako eskubidearen lagapenaren kasuan, 2016ko ekainaren 30aren aurrekoak badira, erabaki daiteke kasuko kontratuak amaitzen diren arte geratzen diren zergaldi guztietan aplikatzea Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen 37. artikuluan ezarritako araubidea, 2016ko ekainaren 30ean indarra duen idazketaren arabera edo foru lege honen 39. artikuluan jaso bezala.

Aukera hori baliatuko da 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehen zergaldiko sozietateen gaineko zergaren aitortzearen.

Idatz-zati honetan ezarritakoa 2021eko ekainaren 30era arte izanen da aplikatzekoa. Ordutik aurrera, idatz-zati honetan aipatutakoarekin bat egin diren lagapen guztiek foru lege honen 39. artikuluan ezarritako araubidea aplikatu beharko dute.

2. 2016ko uztailaren 1etik 2021eko ekainaren 30era aktibo ukiezinak direla-eta egiten diren eskualdaketa guztietan aukera egonen da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 37. artikuluan ezarritako araubidea aplikatzeko, 2016ko ekainaren 30era arte indarrean egon den testuaren arabera. Aukera hori baliatuko da eskualdaketa egin den zergaldiari dagokion sozietateen gaineko zergaren aitortzearen.”

Zioak: Aurrekoaren berdina.

13. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

61. artikuluko 9. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurrekoaren berdina.

14. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

68.2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

JEZaren kenkarirako muga 2.000.000 euroan uztea.

Zioak: Nafarroako enpresak Espainiako gainekoak baino baino egoera okerragoan ez egotea.

15. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

122. artikuluari idatz-zati bat, 3.a, gehitzeko zuzenketa.

Neutraltasunaren araubide bereziaren egokitzapen teknikoa (VIII. tituluko VIII. kapitulua).

“122. artikulua. Partaidetzak entitate eskualdazaitzailearen kapitalean eta entitate eskurazaitzailearenean.

...

3. Zergari dagokionez, eskuratzen diren ondasunak foru lege honen 135. artikuluan ezarritakoaren arabera baloratuko dira. Hala ere, entitate eskurazaitzaileak entitate eskualdazaitzailearen kapitalean gutxienez ere 100eko 5eko partaidetza duenez, edo 100eko 3koa, baldin eta parte hartutako sozietatearen akzioek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badute, partaidetzaren eskuratzeko-prezioaren eta horri dagokion ondare garbiaren arteko diferentzia egotziko zaie, zerga-ondorioetarako, eskuratutako ondasun eta eskubi-deei, Merkataritza Kodeko 46. artikuluan eta gainerako garapen arauetan azaltzen den sartzeko orokorreko metodoa ezarritik; eta aipatutako balorazioaren arabera egotzi ez den diferentziaren zatia, zerga ikuspuntutik, kengarria izanen da foru lege honen 17. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako baldintzetan; horren salbuespena izanen da, bi kasuetan, aurreko entitate eskualdazaitzaile baten zerga-oinarrian sartu ez den diferentziaren zatia, foru lege honen 34. artikuluan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz.

Halaber, jasotako ondasun eta eskubideei egotziko zaie partaidetza eskuratzeak zerga-ondorioetarako daukan balioaren zatia, entitate eskualdaitzailearen egoitzan ondasun eta eskubide horiek —galeren eta irabazien kontuari egotzi ez zitzaizkiolako ondorio fiskalak izan ez zituzten ondasun eta eskubideek— sortu duten balio-aldaketaren doikuntzei dagokiena.

Aurreko bi lerroketan xedatutakoa aplikatzeko, eskatuko da eskuraitzailea eta eskualdaitzailea sozietate talde baten parte ez izatea Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikuluan

ezarritako irizpideen arabera, edozein direla ere egoitza eta urteko kontu bateratuak formulatzeko betebeharra. Baldintza hori ez da aplikatuko eskualdaketa egiten duen pertsonak edo entitateak partaidetza eskuratzean ordaindutako salneurriari dagokionez, aldi berean partaidetza hori eskuratu denean partaidetza hori dela-eta Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako kasuetako batean ere ez zeudenean”.

Zioak: Nafarroako gainerako enpresak gainerako ogasunetakoak baino egoera okerragoan ez egotea.

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Ezkerda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak foru lege proposamen bat aurkeztu dute, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duena, eta eskatu dute presaz eta irakurketa bakarrean izapidetu dadila.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Lege proposamena presaz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Lege proposamena Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoa bete dezan, eta Gobernuari ohartaraztea bere irizpidea adierazteko epea zortzi egunetakoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko

dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Lege proposamena,
Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen
Defentsari buruzko Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bitartez onetsia, aldatzen duena**

Ordenamendu juridikotik desagerrarazi behar da aukera-berdintasunari oztopoak jarri eta diskriminazioa sustatzen duen alderdi oro, arrazoa edozein dela ere –kasu honetan, hain zuzen, GIB/HIESa duten pertsonak izatea–, zenbait kontratu, negozio juridiko, prestazio edo zerbitzutan biltzen diren klausula diskriminatzaileen arloari dagokionez.

Klausula diskriminatzaile horiek areagotu egi-ten dituzte pertsona seropositiboen estigma sozia- la eta legezko diskriminazioa. Egungo legediak gaixotasun hori aitortzera behartzen du, aseguru bat kontratatzerakoan, besteak beste. Esparru horrek estigmatizazioa areagotu baino ez du egi- ten.

Kontaezinak dira klausula baztertzaila eta diskriminatzaile horiek salatu dituzten elkarte, era- kunde eta instituzioak. Izan ere, klausula horiek ondorio larriak ekartzen dituzte ukitutako per- sonen ohiko bizitarako.

Zuzenbide pribatuak aldeei itunak eratzeko eta kontratuak egiteko aitortzen dien askatasuna ezin

da erabili kolektiboak zenbait arlotan diskriminatzeko, arrazoi bakarra gaixotasun bat edukitzea bada. Hortaz, lege bat behar da, ezartze aldera aldeetako bat seropositiboa izateagatik diskriminatzeko edo baztertzeko duen edozein klausula balio gabea dela.

Legegintzako proposamena, beraz, justizia sozialaren araberakoa da. Gainera, erraza da. Nafarroako Parlamentuak 2011n eta 2013an onetsitako lege proposamena errepikatuz, proposatzen da xedapen gehigarri berri bat gehitzea Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bateginari, zeina azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsi baitzen, jasotze aldera klausula horien deuseztasuna.

Beste alde batetik, azken xedapen bat ere sartzeko da, urtebeteko epe arrazoizkoa ezartzen duena, Espainiako Gobernuak proiektu bat aurkeztu dezan non ezarriko baita lege hau aplikatuko zaiela harreman juridikoetan ondorio baztertzailerak berak eragiten ahal dituzten beste gaixotasun batzuei ere.

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko foru lege proposamena aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko, irakurketa bakar eta premiazkoaren prozeduraren bidezko izapidea erabiliz:

ZIOEN AZALPENA

Lege proposamen honen historia luzea eta korapilatsua da. Hasiere batean, Nafarroako Parlamentuak, 2011ko martxoaren 24ko Osoko Bilkuran, onetsi egin zuen Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina –azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onetsia– aldatzen zuen lege proposamena, Kongresuaren Mahaira bidaltzeko, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 212. artikuluko xedatutakoarekin bat, zeinak, bere aldetik, Konstituzioaren 87.2 artikuluari heltzen baitio.

Diputatuen Kongresuaren Mahaiak, halere, iraungitzaile jo zuen ekimena legegintzaldia amaitzean. Hori dela-eta, joan den legegintzaldian berriro aurkeztu zen lege proposamen bera, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuena,

2013ko martxoaren 14ko Osoko Bilkuran. Geroago, xede horretarako izendatutako hiru foru parlamentarik defendatu zuten Diputatuen Kongresuan, 2014ko maiatzaren 6an. Tamalez, ekimena PPren gehiengo osoaren bidez ezetsi zen, Nafarroan aho batez onetsi bazen ere.

Gure ustez hasi berri den legegintzaldi honetan egokierarik badago Nafarroako Parlamentuan lortutako ahobatezkotasuna kontuan har dezaten Diputatuen Kongresuan eta lege proposamen hau, azkenik, gehiengo politikoak onets dezan.

Hori dela eta, honako lege proposamen hau aurkeztu dugu:

Artikulu bakarra.

Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsari buruzko Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen Testu Bategina, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege-dekretuaren bidez onetsia, honela aldatuta geldituko da:

Bat. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, egonen den bakarra. Hona:

“Xedapen gehigarri bakarra. Zenbait klausularen deuseztasuna eta eraginkortasunik eza.

1. Deusezak izanen dira, eta ez-lotesletzat hartuko dira, aldeetako bat GIB/HIESa edukitzeagatik baztertzeko duten klausulak, estipulazioak, baldintzak edo itunak.

2. GIB/HIESa daukanak xedapen honetan ezarritakoari uko egiteak ere ez du baliorik izanen, eta uko egite deuseza izanen da”

Bi. Azken xedapen berri bat eransten da, honako testuarekin:

“Azken xedapenetan laugarrena. Beste gaixotasun batzuetara hedatzea.

Espainiako Gobernuak urtebeteko epean aurkeztuko du lege proiektu bat, zeinaren bidez ezarriko baita lege hau aplikatuko zaiela harreman juridikoetan ondorio baztertzailerak aplikatzen direla irizitako beste gaixotasun batzuei ere”

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta sinatzen diren klausula, estipulazio, baldintza eta itunei nahiz jadanik sinatuta egonik aplikatzekoak direnei aplikatuko zaie.

F saila:
GALDERAK

Galdera, terrorismoa goratzeko pintadak kentze aldera Gobernuaren Ordezkaritzarekin sinatutako protokoloa hausteko erabakiari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, terrorismoa goratzeko pintadak kentze aldera Gobernuaren Ordezkaritzarekin sinatutako protokoloa hausteko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko eledun Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik erabaki du Nafarroako Gobernuak haustea terrorismoa goratzeko pintadak kentze aldera Gobernuaren Ordezkaritzarekin sinatutako protokoloa?

Iruñean, 2016ko abenduaren 1ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, atzerriko hizkuntzetako ikaskuntza programa ezartzeari buruzko foru aginduaren zirriborroari eusteko arrazoiei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, atzerriko hizkuntzetako ikaskuntza programa ezartzeari

buruzko foru aginduaren zirriborroari eusteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, eskatzen du honako galdera hau, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariari egina, abenduaren 15eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko izapidetu dadin:

Zer arrazoi ditu Hezkuntza Departamentuak atzerriko hizkuntzetako ikaskuntza programa ezartzeari buruzko foru aginduaren zirriborroari eusteko, non ingelesezko irakaskuntzarako asteko ordu kopurua guztiz zuzengabea eta ikaskuntzarako kaltegarria baita eta ikastetxeen arteko bazterketa dakarren?

Corellan, 2016ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera